



FAMILIA ETA TELEBISTA, INTERNET ETA BIDEOJOKOEN ERABILERA



AURKIBIDEA

- Hainbat datu interesgarri.
- Pantaila berrien haurrentzako alderdi positiboak eta negatiboak.
- Pantaila berriak etxean erabiltzeko hezkuntza-irizpide orokorrak.
- Telebista erabiltzeko hezkuntza-irizpideak.
- Internet eta ordenagailuak erabiltzeko hezkuntza-irizpideak.
- Bideo-kontsolak erabiltzeko hezkuntza-irizpideak.

HAINBAT DATU INTERESGARRI

- Etxean pantaila berriak egoteak, senitartekoen arteko zuzeneko harreman-denbora murriztaraz dezake.
- Seme-alabek TBan, Interneten eta Bideojokoetan jolasten zenbat denbora ematen duten kontrolatzeko joera dute gurasoek.
- Seme-alabek pantaila berriak erabiltzeko moduz arduratzen dira gurasoak baina, oro har, gehienek ez dituzte neurri egokirik hartzen ekiditeko.
- Gurasoak lanean egotearen ondorioz, haurrek denbora gehiago ematen dute pantaila berrien aurrean.



PANTAILA BERRIEN HAURRENTZAKO ALDERDI POSITIBOAK ETA NEGATIBOAK




- Ezagutza berrien iturri dira.
- Hurren hiztegia aberats dezakete.
- Emozioak erregulatzen lagun dezakete.
- Gizartearen funtzionamendua ulertaraz dezakete.
- Jolas-jarduerak garapen psikologikorako mesedegarri dira.
- Ikusi eta mugitzeko koordinazio-ahalmenak garatzearen alde egin dezakete hainbat bideo-jokok.



- Mendekotasuna eta nork bere burua zailtasunez kontrolatzea eragin ditzakete.
- Indarkeriaren erabilerarekiko balio permisiboak helaraz ditzakete.
- Sexualitatearen ikuspegi faltsua eta bi pertsonen arteko maitasunezko harremanetik kanpo irudika dezakete.
- Egiazko eta fikziozko mundua bereiztea eragotz dezakete.
- Familia-arazoen ihesbide gisa eta horiei aurre ez egiteko erabil daitezke.
- Jokabide desegokiak imitatzera eraman dezakete.

PANTAILA BERRIAK ETXEAN ERABILTZEKO HEZKUNTZA IRIZPIDE OROKORRAK

- Ahal bada, jarri etxeko pantaila berriak ikasteko lekutik kanpo.
- Adostu neskatila-mutikoarekin erabiltzeko ordutegia.
- Gainbegiratu zein edukietara sartzen diren.
- Hobe eduki egokiekiko kontaktua sustatzea, desegokiekikoa debekatzea baino.
- Gogoratu hobeto bereganatzen direla ulertzen eta neskatila-mutikoekin adosten diren arauak.
- Sustatu aisialdirako beste aukera batzuk: kirola, irakurketa, lagunak...
- Sustatu irakurketa haurrei txiki-txikitatik ipuinak kontatuz eta irakurriz.



TELEBISTA ERABILTZEKO HEZKUNTZA IRIZPIDEAK

- Garrantzitsua da telebista familiarean ikustea, horrela, honako helburu hauek betetzen baitira:



- + Haurrek errealitatea eta fantasia bereiztea lortzea.
- + Ezinezko itxaropenak garatzea galaraztea.
- + Ezagutzen ez dena ulertzen laguntzea.

- Gurasoek ez dute seme-alabak aurrean daudela ikusi behar, beroriek ikustea nahi ez dutena.
- Gurasoek pantailan azaltzen denarekiko kritika-gaitasuna sustatu behar dute.
- Ahaleginak egin telebista haurrentzako programak eta saio hezigarriak ikusteko baino izan ez dadin.
- Galarazi eduki trauskilezko saioak: tele-errealitatea eta “hizkimizkiak”, beseak beste.
- Ez eduki TB piztuta jatorduetan.

INTERNET ETA ORDENAGAILUAK ERABILTZEKO HEZKUNTZA IRIZPIDEAK

- Informazioa bilatzeko tresna gisako erabilera sustatzea.
- Erakutsi hurrei behar bezala erabiltzen, bai alderdi teknikoei zein jarrerazkoei dagokienez: pantailarainoko tarteak, argiztapena, iragazkien erabilera, etab.
- Erabili eduki desegokietarako iragazkiak haur txikiekin.
- Nabigatu elkarrekin eta berba egin kontsultatutako edukietaz.
- Erakutsi ordenagailua lan-tresna gisa erabiltzen: informazioa antolatzea, komunikatzea, etab.



BIDEOJOKOAK ERABILTZEKO HEZKUNTZA IRIZPIDEAK



- Kontrolatu bideojokoen edukia.
- Ez utzi edonolako indarkeria erabiltzen dituztenez baliatzen.
- Sustatu jokalaria batentzako baino gehiagorentzako (beste haur batzuekin jolas daitezzen) bideojokoen erabilera.
- Sustatu bideojoko sortzaile eta hezigarrien erabilera.
- Jolastu seme-alabekin.
- Eragotzi jolasteko ordutegia gurasoen interesen arabera luzatzea.
- Egin jolasteko denbora-tarteen plangintza, hala nola, oporretan, bideojokorik gabeko tarteak...